

ALTZA! PORRU



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

2002ko martxoa-apirila / 4 zenbakia

Euskal Herriko trikitixa eguna

Auntxa eta Kaxiano zendu dira

Trikitixa egunak eta omenaldia

Shantu Festival Medemblik eta
soinu ikastaroa

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA

Aurten ere burutuko da Euskal Herriko trikiti zale guztiak bildu nahi dituen Trikitixa Eguna. Apirilak 21ean ospatuko da Zamudion.

10:30ak inguruan, Txorierriko mankomunitateko Loiu, Lezama, Sondika, Derio eta Zamudioko herriak alaitzen hasiko gara Euskal Herri guztiatik etorritako hainbat trikitixa eskoletako partaideak, bertan kalejirak eginik.

13:30tarako guztiok bilduko gara Zamudioko eliza aurrean eta karpa ingurura abiatuko gara, bertan bazkaldu asmoz.

Menua:

- Lur sagarrak errioxar erara
- Erredondoa
- Tarta izozkiarekin
- Kafea

Egun honetaz baliaturik Txorierrri inguruan bere soinu kromatikoarekin hainbeste erromeri alaitu dituen Legina eta bere laguntzaileak omendu nahi dira.

Eta guzti honen ondoren Ene Bada taldeak alaituko digu arratsaldea, nahiko dantza egiteko aukera izango dugularik.

Pasa den urteko Euskal Herriko Trikitixa Egunak izan zuen arrakasta ikusita aurten ere Zamudio aldera jende asko azalduko delakoan gaude. Hortaz, bertan bazkaltzeko asmorik baduzue lehen baitlehen izena ematea komeni da Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko bulegoan.

Telefonoa: 943-832828 edo 657 / 79.42.17

AUNTXA ETA KAXIANO ZENDU DIRA



Antonio Aranaga "Auntxa" trikitilaria abenduaren 13an hil zen 91 urte zituela. Duela urte pare bat utzi zuen erabat soinua. Hamar urterekin erosi zuen bere lehen soinua hogeita hamar pezetetan. Elgetaren eskolakoa zen Sakabirekin batera, hala ere autodidakta ere bazen. Gipuzkoa eta Nafarroa aldean ibili zen batez ere erromeriaz erromeria. Disko bat du grabaturik Iturbide pandero jolearekin Urrestillako Trikitixa 1975. urtean.

Kaxiano Iburguren Urtarrilaren 29an hil zen 69 urte zituela. Kaxiano, Lizartzako itsua, hainbat plaza eta erromerietan ibili zen soinu handia joaz. Bost disko atera zituen 1986tik 1996ra eta hauetan, Itsasontzi baten edo Zorionak bezalako abestiak ditugu. Soinu jole izateaz gain bertsolaria zen, eta bertso doinu askoren sortzaile ere bazen.



DISKO BERRIAK:



1. JUANITO MALTZETA: NEGARREZ ABESTEN DUT

Juanito Garate "Maltzeta"ren hirugarren lana dugu Negarrez abesten dut. Lehengo urteko otsailean grabatu eta azaroan atera zuen Elkar disketxearen Triki zigiluaren eskutik. Cesar Ibarretzek grabatu eta nahastu du eta moldaketak Iker Allurrenak dira. 14 kantaz osatua dago. Musika dena Juanito Maltzetarena da bi kanta izan ezik. Hauek, Mamen alabak sortuak dira. Juanito Maltzeta Azkoitian jaio zen 1924an eta hamasei urterekin hasi zen soinua jotzen. Euskal Herriko hainbat erromeria eta festa pasa ditu Juanitok soinua joaz. Pandero jole askorekin ibilia da, baina azken urteetan, bere alaba Mamenen laguntza izan du.



2. UR GABE: HI BIZI HADI

Urgaberen bigarren lana dugu Otsailaren 27an aurkeztutakoa. 2002ko urtarrilean grabatu zuten Elkar estudioan Jean Phocas-ek grabatu eta nahastua. 12 kantaz osatua dago. Taldeko partaideak hauek dira: Jose Agustin Barandiaran: trikitixa eta ahotsa; Ainara Arrizabalaga: panderoa, gitarra eta ahotsak; Mikel Romero: gitarrak; Kike Mora: baxua; Kepa Calvo: bateria.



3. MAIXA: SENTITZEN NAIZ

Maixa eta Ixiar taldea desagertu ondoren Maixa Lizarribarrek bere lehen lana kaleratuko du bakarka 12 abestiz osatua dago eta produkzioaren arduraduna Triku izan da. Martxoaren erdialdean aurkeztuko dute eta gure hurrengo alean emango dizuegu horren berri.

TRIKITIXA EGUNAK ETA OMENALDIA

¥ SANTITXO PANDERO JOLEAK 100 URTE BETETZEN DITU ETA OMENALDIA EGINGO ZAIO AMOROTON

Bizkaian bere panderoarekin hainbeste herri alaitu dituen Santitxok 100 urte beteko ditu. Hori dela bide, Amoroto herriak merezitako omenaldi bat eskaini nahi dio horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituelarik:

Martxoaren 19tik 24ra argazki zaharrez hornituriko erakusketa egongo da, "Amoroto memorian, trikitixa irudietan" ikustera joan nahi duen edonorentzat kultur etxean.

Martxoaren 22an (ostirala) Joseba Tapiak "Agur Intxorta Maite" emanaldia eskainiko du arratsaldeko 20:30etan kultur etxean.

Martxoaren 24ean (igandea) eguerdiko mezaren ondoren omenaldia egingo zaio Santi Zabalari. Amorotoko udaletxeko balkoian, 1931tik Santi Zabalak ezkutaturik eduki zuen ikusrrinaren altzatzea izango da. Bertsoak Jon Azpillagaren

eskutik izango dira. Ondoren, txikiteoa izango da Amorotoko herrian trikitilarien laguntzaz eta gosetzean, Oletara bazkaltzera. Trikitilari ugari gerturatuko da, esaterako: Egurrola eta Iturbide, Epelde eta Larrañaga, Sahatseta eta Berastegi, Oletako Manolo, Laja eta Landakanda eta Tapia eta Leturia.

Ea egun eder bat pasatzen duen Santitxok, hainbeste mereziko du eta!

¥ NAFARROAKO II. TRIKITIXA TOPAKETA

Martxoaren 24an

Nafarroako II. trikitixa topaketa Tuteran ospatuko da Nafarroa Oinez-eko ekitaldien barruan. Egitaraua hau da

11:30-----Guztiok Tuterako ikastolan elkartu

12:00-----Kalejira herriko kale ezberdinetatik barrena

14:00-----Bazkaria

Parte hartuko duten trikitixa eskolak: Irats, Barañain, Sakana, Auntxa eta Lesaka.

¥ NAFARROKO V. TRIKITIXA EGUNA BIANAN

Maiatzaren 19an

11:00--- Trikitilari guztiei harrera eginen zaie herriko plazan.

11:15 --- Hamaiketakoa denentzat.

11:45 --- Aurkezpena: Aurreksua, bertsolariak, herriko trikitilariak eta zinta moztea.

12:00 --- Inguruko herrietara irteera, bertan talde ezberdinek kalejirak eginen dituztelarik.

14:00 --- Bianara itzuli eta bertako tranpaldoan trikitixa eskolen emanaldiak.

14:30 ---Bazkaria.

17:30 --- Dantzaldia **Tapia ta Leturia**-kin.

OHARRA: Egun horretan bertan Zero Sette trikitixa bat eta Agirre pandero bat zozketatuko dira, dagoeneko txartelak salgai daudelarik 30ren truke. Zozketarako txartelak nahi izanez gero, deitu 652- 741093 telefonora.

SHANTY FESTIVAL MEDEMBLIK ETA SOINU IKASTAROA

Jaialdi hau Amsterdam-etik ordubetera dagoen herri batean ospatu zen azaroak 23 eta 24an. Bertan Jose Agustin Elortza eta Xabier Arakama izan ziren Euskal Herriatik. Itsas-musikari buruzko jaialdia da, han itsasoaren inguruko letrak, kanta etab-ek tradizio handia dute. Euskaldunetz gain Bretoi, Alemaniak, Ingalaterrak, Holandar eta Belgikarrak egon ziren. Akordeoi diatoniko jole gehiago ba omen ziren tartean eta euskaldunetz jaso zuten harrera

ezin hobea izan zela adierazi digu Xabi Arakamak.

Holanda aldean baita ere, Groningen herrian, otsailaren 15 eta 16an tailer musikala ospatu zen akordeoi diatoniko eta bibolin tradizionalaren inguruan. Bertan irakasle kolonbiar, bretoi, ingeles, finlandiar, italiar eta euskaldunak izan ziren. Bakoitzak 12 bat ikasleko tailerra zuen eta gero kontzertuak antolatzen zituzten. Euskal Herriatik Xabi Arakama eta Izarne Garmendia izan genituen.



ARGAZKI ZAHARRAK



Jexux Beobate umea zelarrik. Cengotita soinu bat du esku artean, Euskal Herrian ezagutzen den soinu diatoniko lehen marka da, Bilbon zeuden tailerrak

gurutzegrama

		Ipar., berritsuak		Soinu erre-gistroa		Toka, dut		Ekartzen duena
		Oihan-darrak		Suen aur-kako hesi		Titanioa		Bokala
		Azeria						Bokala
		Itzulia						Ganibeta
Izena	Bahetzeko tresna					Jatorri atzizkia		
Bahituran hartzea	Hiri txiki					Pozik		
							49	
							Zuhaitz mota	
Deitura								
Mirakulu								
					Arto, hitz elkarketan			
					3,1416			
Erbioa		I		Malkar				Kontso-nantea
Onddo mota		Fosforoa		Potasioa				
						2000an		



soluzioak

E	K	A	R	L	E		Z
•	•	•	•	•	•	•	•
D	I	A	T	A	I		I
•	•	•	•	•	•	•	•
M	A	I	E	A	L		
•	•	•	•	•	•	•	•
K	A	L	H	S	A	P	I
•	•	•	•	•	•	•	•
B	B	I	K	A	R	I	P
•	•	•	•	•	•	•	•
		X	B	E	R	I	
		•	•	•	•	•	
		B	M	E	T	R	
		•	•	•	•	•	